



A K T A

Aiarako Kuadrillaren **TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK** egindako ohiko bilkurarena,

2020ko abenduaren 16koa

Bideokonferentzia bidez, **13:07ak direnean**, jarraian zerrendatzen diren batzarkideak elkartu dira **ohiko bilkura egiteko, lehen deialdian**. Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzordeko presidente **Encina Castresana Astarloa andrea** izan da bilkuraren burua, eta Gianfranco Ghiro Alonso jauna, behean izenpetzen duena, aritu da behin-behineko idazkari-lanetan.

Jarraian aipatutako jaun-andre batzarkideak konektatu dira bideokonferentziara:

Encina CASTRESANA ASTARLOA and. (EAJ-PNV)

Joseba VIVANCO RETES jn. (EH BILDU)

Gentza ALAMILLO UDAETA jn. (EAJ-PNV)

Txerra MOLINUEVO LAÑA jn. (EAJ-PNV)

Jon ESCUZA DEL CAMPO jn. (EAJ-PNV)

Ez da bertaratu eta ez etortzea justifikatu du honako batzarkide honek:

Ander AÑIBARRO MAESTRE jn. (EAJ-PNV)

Escuza del Campo jauna bilkurara konektatu da 13:10ean, eguneko gai-zerrendako bigarren puntua aztertzen ari zirela.

Ez dira bilkurara bertaratu Talde Politiko Batzarkideetako bozeramaileak, gonbidatuak izan arren.

Gainera, modu telematikoan, Kuadrillako teknikari gisa, Arbaizagoitia andreak parte hartu du, dagokion saileko puntuak azaltzeko.

Bilkura modu telematikoan egin da, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetatik bigarrenean ezarritakoaren arabera. Horren bidez, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen da, eta 46. artikuluari beste atal bat gehitzen zaio, 3. atala, hain zuzen ere. Horrek organo honi bilkurak modu telematikoan egiteko aukera ematen dio, COVID-19ak eragindako gaur egungo salbuespeneko osasun-egoera aintzat hartuta.



Kuadrillako presidente andreak, **lehenengo deialdian, 13:07an**, osoko ohiko bilkura irekita dagoela adierazi du, behin-behineko idazkariak bilera abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Kuadrillak arautzen dituen Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta. Halaber, agindu du ezarritako gai-zerrendari jarraituko diotela.

1.- IRAKURTZEA ETA ONESTEA, HALA BADAGOKIO, AZAROAREN 20an ETA ABENDUAREN 4an EGINDAKO EZOHIKO BILKUREN AKTAREN ZIRRIBORROA

Deialdiarekin batera, egindako azken bilkuraren aktaren zirriborroa erantsi da, hori aztertzeko, eta ez dagoenez inongo alegaziorik, aho batez **ADOSTU DA** azaroaren 20an eta abenduaren 4an egindako bilkuren akta onestea.

2.- ONESTEA TURISMOKO ETA KODE ETIKOKO LAGUNTZA TEKNIKOAREN LIZITAZIOA ESLEITZEKO PROPOSAMENA

Ghiro jaunak kontratazio-mahaiak abenduaren 14an egindako bileraren berri eman du, eta esleipen-proposamena azaldu du.

Azterketa egin eta zalantzak eta argibideak argitutakoan, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

IKUSI DA Turismoko eta Kode Etikoko Laguntza Teknikoaren kontratazio-mahaiak abenduaren 14an hartutako erabakia.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Guztira 96 puntu lortu dituenek, **IPARNATURE SL** enpresak aurkeztutako lizitazio honetan 633 2020/17/S02.01.03.02 **ESPEDIENTEAREN (TURISMOKO LAGUNTZA TEKNIKOA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIA – TXAKOLINAREN IBILBIDEA ETA KODE ETIKOA)** eskaintzaren kalifikazioa onestea eta kontratazioa esleitzea proposatzea **IPARNATURE SL** enpresari, honako zenbateko honengatik:

- Turismoko laguntza teknikoa, lanaldi erdikoa (984 ordu). Urteko prezioa: **HOGETA BEDERATZI MILA BOSTEHUN ETA HOGEI EURO (29.520,00 €) (BEZik gabe).**
- Aurreikusitako 984 orduen ordu gehigarriak, **ORDUKO HOGETA HAMAR EUROKO** prezioan (30,00 €/orduko) (BEZik gabe).
- Etika Kodeko laguntza teknikoa, **ORDUKO HOGETA HAMABI EUROKO** prezioan (32,00 €/orduko) (BEZik gabe).



BIGARRENA.- IPARNATURE SL enpresari jakinaraztea eta kontratazioa formalizatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko eskatzea.

3- ONESTEA, HALA BADAGOKIO, IRAKURKETA KLUB FEMINISTA ESLEITZEKO PROPOSAMENA

Presidente andreak jakinarazi du berdintasuneko teknikaria beste bilera batean dagoela, haren ez etortzea justifikatu du, eta egindako esleipen-proposamena deskribatu du. Azterketa egin eta zalantzak eta argibideak argitutakoan, aho batez ADOSTU DA honako ERABAKI hau hartzea:

IKUSI DA Berdintasuneko teknikariak 2020ko abenduaren 10ean egindako txostena.

IKUSI DA 230 226991 partidari kreditu nahikoa dagoela.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Irakurketa klub feminista BEGOÑA ETAYO EREÑARI (IFZ: 16245283S) esleitzea onestea, SEIEHUN ETA BERROGEITA ZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA ZORTZI ZENTIMOKO zenbatekoagatik (647,68 €) (BEZik GABE).

4- ERREPIDEEN FORU SARERAKO NEGUKO BIDEEN GARBIKETA-ZERBITZUAK

4.1.- ONESTEA ZERBITZU HORIEN LIZITAZIOA ESLEITZEKO PROPOSAMENA

Arbaizagoitia andreak jakinarazi du bi enpresa aurkeztu direla lizitazio honetara:

Belako Lanak SL: 1., 2. eta 6. loteetan
Orkatz Vialidad: 2., 4., 7. eta 9. loteetan

Orkatz enpresaren eskaintza automatikoki baztertu zen, C gutun-azalean A gutun-azalari dagokion dokumentazioa sartu zelako. Sei lote hutsik geratu dira, Belako enpresak 3 lotetan bakarrik aurkeztu baitu eskaintza.

Azterketa egin eta zalantzak eta argibideak argitutakoan, aho batez ADOSTU DA honako ERABAKI hau hartzea:

IKUSI DA errepideen foru-sarerako neguko bide-garbiketaren kontratazio-mahaiak abenduaren 14an hartutako erabakia.

ERABAKI DA:



LEHENENGOA.- BELAKO LANAK SL enpresak 1., 2. eta loteetan lortutako puntuak ikusita, eskaintzaren kalifikazioa onestea eta honako kontratazio hau esleitzea proposatzea:

	Puntuak	Prezioa (BEZik gabe)	BEZa	Prezioa (BEZa barne)
1. lotea	69,5	61,39 €/orduko	6,14 €	67,53 €/orduko
2. lotea	69,5	61,39 €/orduko	6,14 €	67,53 €/orduko
6. lotea	69,5	61,39 €/orduko	6,14 €	67,53 €/orduko

BIGARRENA.- BELAKO LANAK SL enpresari jakinaraztea eta hiru loteen kontratazioa formalizatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko eskatzea.

4.2.- ONESTEA, HALA BADAGOKIO, ZERBITZU HORIEN LIZITAZIOAN HUTSIK GERATU DIREN LOTEEN LIZITAZIO-PROZEDURA

Arbaizagoitia andreak jakinarazi du aurreko puntuan egindako esleipenaren ondoren, 3., 4., 5., 7., 8. eta 9. loteak hutsik geratu direla. Presazko prozedura ireki baten bidez berriro lizitatzeko proposamena aurkeztu du. Pleguak aurrekoen berdinak izango dira, eta aldaketa txiki batzuk egingo dira balio-judizioen puntuetan.

Azterketa egin eta zalantzak eta argibideak argitutakoan, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

Azalpenak bukatu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Onestea prozedura irekiaren bidezko lizitazioa, errepideen foru-sarerako neguko bide-garbiketa kontratatzeke, 3., 4., 5., 7., 8. eta 9. loteak (aurreko lizitazioan hutsik geratu ziren).

BIGARRENA.- Onestea Aiarako Kuadrillako errepideen foru-sarerako neguko bide-garbiketaren kontratazioa arautzen duten pleguak (KAPP eta PTP).

5- KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK CESPAN ENPRESARI EZARRITAKO ZEHAPENAREN KOBRANTZA BANATZEKO PROPOSAMENA



Arbaizagoitia andreak jakinarazi du azaroaren 18an CESPAn enpresak 72.331,72 euro ordaindu zizkiola Aiarako Kuadrillari; hondakinak biltzeko kontratua ez betetzeagatik ezarritako zehapenari dagozkio. Zenbateko hori honela banatzen da:

Eman gabeko zerbitzuak	
Arraindegiak (Laudi soilik) irailetik abendura	3.720,96 €
Papera/kartoiaren atez ateko bilketa irailetik abendura	8.610,76 €
Guztira	12.331,72 €:
Arau-haustekak	
Ustiapen planeko punturen bat edo batzuk behin eta berriz ez betetzea, justifikatutako arrazoirik gabe	30.000,00 €
Eskaintako hobekuntzetan jasotako berariazko baldintzak ez betetzea	6.000,00 €
Esleipendunaren eta zerbitzu tekniken artean adostutako kalitate-mailetako batzuk behin eta berriz ez betetzea	12.000,00 €
Pleguan eskatutako informazio/dokumentazioa eskatutako aldizkakotasunarekin eta epeetan ez aurkeztea	12.000,00 €
Guztira	60.000,00 €
GUZTIRA	72.331,72 €

Aurreko banaketa aintzat hartuta, honako hau proposatzen da:

- 2020ko likidazioan, Laudioko Udalaren alde 3.720,96 euro aplikatzea, udalerrian arraindegietako bilketa-zerbitzua ezartzen berandutzeagatik.
- 2020ko lizitazioan paper eta kartoiaren atez ateko bilketa-zerbitzuaren urteko zenbatekoa 8.610,76 euro murriztea, 5 mankomunatuaren onurarako.
- 5 mankomunatuaren alde 60.000 euro aplikatzea, azken ekarpena ateratzen den ehuneko berean, CESPAn enpresari ordaindutako kanonean jasotako zerbitzu guztiak aintzat hartuta.

Azalpenak bukatu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Onestea CESPAn enpresari hondakinak biltzeko kontratua ez betetzeagatik ezarritako zehapena banatzeko irizpideak:

- 2020ko likidazioan Laudioko Udalaren alde 3.720,96 euro aplikatzea, udalerrian arraindegietako bilketa-zerbitzua ezartzen berandutzeagatik.
- 2020ko lizitazioan paper-kartoiaren atez ateko bilketa-zerbitzuaren urteko zenbatekoa 8.610,76 euro murriztea, 5 mankomunatuaren onurarako.
- 5 mankomunatuaren alde 60.000 euro aplikatzea, azken ekarpena ateratzen den ehuneko berean, CESPAn enpresari ordaindutako kanonean jasotako zerbitzu guztiak aintzat hartuta.



BIGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzar batean erabaki da zehapen hori zein urtetan aplikatuko den, 2020ko Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funttsaren likidazioa eta 2021ekoa ezagutzen direnean.

6.- ONESTEA, HALA BADAGOKIO, GIZARTE-LANGILEAREN KONTRATUA BERRITZEA

Presidente andreak jakinarazi du gizarte-langilearen kontratua, lanaldiaren % 70era, abenduaren 31ean amaitzen dela, Artziniegan 2,5 egun egiten du lan eta Okondon beste egun bat. 2021erako onarpen-prozesuan dagoen aurrekontuan, % 70eko lanaldia duen lanpostua hartzen da aintzat, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin sinatutako hitzarmena berritzea aurreikusten da, zerbitzu horren kostuaren zati bat finantzatzen duena.

Azalpenak bukatu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Onestea gizarte-langilearen kontratua berritzea, 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31era, lanaldiaren % 70ean.

7.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, OFFICE, PANDA ETA ZOOM LIZENTZIAK EROSTEA

Ghiro jaunak jakinarazi du, Firmadoc eguneratu denez, beharrezkoa dela Kuadrillako ekipoen office lizentzia eguneratzea. Era berean, urtarrilaren 1ean antibirusaren lizentzia berritu behar da. Gainera, bilera telematikoak egiteko, Kuadrillako Batzar telematikoak egiteko edo zuzenean emateko, lizentzia behar da.

Azalpenak bukatu ostean, aho batez **ADOSTU DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

IKUSI DIRA Aiara Informática enpresak Office 2019 eta Panda 360 programentzat beharrezkoak diren lizentziekin aurkeztutako aurrekontuak.

IKUSI DA 920 215002 partidaren kreditu nahikoa dagoela, 2021eko aurrekontuen aurreproiektuan.

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Onestea AIC, S.Coop. enpresari (IFK: F01355841) esleitzea Office 2019 lizentziak eskuratzea, 2.900,00 euroko zenbatekoagatik (BEZik gabe), eta Panda 360 lizentziak eskuratzea, 1.948.80 euroko zenbatekoagatik (BEZik gabe).



BIGARRENA.- Zoom Profesional lizentzia kontratatzea, bai eta aldibereko itzulpenarekin egindako bilerak *streaming* bidez zuzenean emateko beharrezkoak diren osagarriak ere.

8.-ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez da horren inguruko alegaziorik aurkeztu.

Eta beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **13:49ak** direnean. Era berean, presidenteak eta neuk, idazkariak, izenpetu dugu akta hau, eta neuk idatzitako guztia egiaztatzen dut.

KUADRILLAKO PRESIDENTEA. ENCINA CASTRESANA ASTARLOA.

**KUADRILLAKO BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA. GIANFRANCO GHIRO
ALONSO**

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**